

anaitasuna

ZEZEILLA (2) 1966 — XIII URTEA — N.º 132 — Dep. Legal S. S. 1092-1959 — Zuzendaritza: Bilbon. — Arantzazuko Irarkolan.

Eztago ortarako deretxorik Millaka ume eskola barik

Aste batzuek ba dira au irakurri genduala. Barriak alde eben gure oroimenetik, baiña problemak ez dira aín erretz baretzen.

Estadistika bat egin da Bolbon eskolarako umeen arlean: pare bat mille ume eskola gabe dagoz, eskol-etxe paltan. Ille batzuek barru,

andik edo emendik, antolatu-ko dira tokiren batzuk, baiña mille bat inguru eskola gabe geldituko dira datorren urtera arte.

zunen kontu bereziagoa artzen dau, eta geroago ta parte er-naitsuagoa nai dau bere ta gizadiaren bizitzan. Au dala-ta, geroago ta bearrezkoago, prisatsuagoa azaltzen jaku ezitzea gizaki guztientzat. Ezitze onetara igoteko eskubidea gizaki izatearena da, izan be,

(Irugarren orrira)

Iñok ezin daike ukatu gizon guztiok edukatuak izateko eskubide daukogunik. Batikano Batzar Nagusiak esan be egiten dau nok daukon gizonak edukatu bearra. "Errietako agintaritzak —Batzar Nagusiko Deklaraziñoak diñoana da— ontan jarri bear ditu laguntzak: gurasoek, askatasun osoz, beren kontzientziak difiotsoenez, euren semeentzat eskolak aukeratu al daikeen eran". Izan be, onetariko laguntza barik, aukeratuteko askatasuna, amets bat baiño ez da. Gurasoak zelan eukiko dabe aukeratuteko erea, bear diran eskolarik ez badagoz. Auxe da erri aundiko barrio pobre eta txarretan gertatuten dana. Bilbon be orixe gertatuten da, eundaka ume eskola barik bai dagoz. Eta eztago olan egoteko deretxorik. Ez daigun jarri erru guztia errietako agintarietzan bakarrik, gizartea osatzen dogunok be ba dakagu zer-ikusia ta.

BETI AURRERA

Aldizkari onen lenengo-koetako zenbaki baten idazburu auxe irakurri dot: *Beti aurrera!* Orduko eta gaurko asmoak bardiñ-bardiñak dirala-ta, idazburu bardiña jarri deusat artikulu oneri.

Igaro dan illeko zenbakian dei bat egiten geuntsoen gure arpeduneri, suskritoerak ugarituteko, laguntasuna eskatuaz. Zorionez, erantzunak naiko ugariak izan dira ainbeste errietatik. Esker zintzoena bialdu gura geinkeoz, beraz Ondarroa, Lekeitio, Gernika, Durango eta Mungia aldeko arpeduneri emon deuskuen laguntasunagaitik. Ta batez be Ondarruko Etxaburular Iñaki eta Joxe Mari ta Jauregi tar Jon ta Viktor anaieri mutillik jotorenak izan diralako.


Ta "Anaitasuna" aurrera begira dago, zabalduago ta indartsuago egiteko asmoan. Ortarako suskritoeren lagunlasuna derrigorrezkoa dogula zertan esan bearrik be ez. Ta ba dakigu, orain arte lez, eurak izango dirala aldizkari au andiago egiteko zain dagozanak. Zabaldu bada, euskera ta euskaldunen onerako izango bai da. Adierazi daigun euskaldunak garala. Ekin daigun, ba, danok alkarturik.

Orain sei urte, 1959'ko urtarrillaren 25'an, "biotz eta esku dardaritsu" batek azi txiki bat erein eban gizadiaren kondairan: Konziliu barria.

Erne zan azia; egin zan aundia; eta asi da bere fruituak emoten. Ale ortariko bat gaztedia ezitzearen gaiñ diardun Dekretua da.

Beti artu da arreta aundiz gai au. Batez be, azkenengo Aita Santu oneek sarri nai izan dabe guraso ta gizarteen erantzun-bearra ernai araztea. Eta azkenik, zintzo ta egoki berba egitea nai izan daben Konziliu onek. Ezin leitekean bestera izan.

Konziliuak barriz asiera-asieratik gogoratzen deuskun legez, gizonaren bizitzan ezitzearen garrantzia azkeneraiñoa da, eta geroago ta zerikusi aundiagoa dauka gaurko gizartearen aurrerapenean. Izan be, gaurko gizakiak norberaren dignidade ta eginki-



Begoña-tik

Erbestean ibilli dan edozeinek daki zelakoak izan bear leitekezan bideak. Izan be gure arteko bideak ba dauke apur bat apaindu bearra.

Premiñ au geroago ta andi-goaga egiten da, trafikoa be egunetik egunera anditzen doata. Amaikatzu txoke ikusten doguz egunero gure bideetan. Gabonetan egoten diranetan pentsetea baiño eztago. Baiña ezin daiteke bide txarretan jarri ezbear danen errua, askotan norberak eukiten bait dau erru geiena lastertasunak larregi-koak izaten diralako.

Aurtengo urtetik aurrerantzera laguntasun bereziko bat sortu da bideetarako. Egunero koetan agertu dan lez, Asocia-

ción de ayuda en la carretera Bilbo-n oraintsu sortu dana. Gizarte barri au España guztian lelengokoa da eta igaro dan urtarrilletik dator biarrean. Asmatzaille eta lelengo lendakaria Usparitxa mediku Jauna dogu; ordezkaria, barriz, Gabriel Gondra, Bilboko abogadua. Kide onetan borondate oneko gizon guztiak artzen dira; borondate on ori —jakiña— agertu egin bear da ortarako aukerea datorrenean. Gaur bertan berreun gizon inguru izenak emonda dagoz, geienak Bizkai-ko errietakoak; baiña —au be esan bearrekoa da— gizarte barri onen asmatzalleak konpromisozko gizonak gura dabez bakar-bakarrik, au da, ez bearrean dagon lagun urkoari lagunduteko zain egongo diran gizonak.

Gizon batzuk ainbeste kilometroetan ezin leikeela egin aparteko gauzarik pentsaluko dau baten batek. Ba dakigu —kide ori osatzen dabenak be ba daki— gauz asko dagozala konpondu bearrean eta gauza orreek era batera konpondutea ez dala izango eginkizun erreza. Baiña, nik itaunduten dot, gaurtik gaur ez da izango naiko gizarte onen bitartez bideetan, ta batez be zoritxarretan, anaitasun apur bat lortuten bada? Gizarte barri onen beste xeztasun batzuk jakin gura dauzanak, seiñe onetara idaztea baiño ez dauko:

C. Erzilla, Departamento 34, Núm. 22. BILBAO.

Bermeo-tik

Bermiotarrak benetan sailatu garala aurten erri guztian Gabonetan gura izaten dan alaitasuna zabaltzen. Ara daltale txiki bat: Joxe Deunaren kolejioan gaztediak antolatu eben belen bizia. Geure Eleiz eta etxeetan itxurazko jaiotzak baiño ez doguz ikusten. Ardiak, artzainak, bideak, errekek, danak itxurazkoak. Bermio-n, barriz, aurten bene-benetako bat antolatu zan, azur ta aragizkoa. Gaztedia —neska-mutillak— izan ziran idei txalogarri ori egiztu ebenak. Eta politto baiño polittoago egiztu be gero. Diñotena egia dala ba daki seguru belen ori ikusi eban edozeinek. Eske izan be bermiotarrak itxurazko gauzak egiteko aparteko grazi bat euki dau beti.

Durango-tik

"Arbol de Navidad" dala-ta, amaikatzu zorakeri egiten dira urtero mendietan eta. Penagarria da izan egiten dan ori. Batez be goroztiek artu bear izaten dabezan ebaiketak penagarriagoak dirala esan bearra dago. Aurten be amaikatzu goti ebai dira orma bat ornidutearren bakar-bakarrik. Mendiak derrigorrez artu bear leiteken ondamen galeraztearren aspalditik sortuak dira bereziko bibero batzuk. Orretariko bibero bat Durango-n daukagu. Bibero-solo onetatik aurten 10.000 izai edo abeto urten dira. Aurten lelengoz Portugal-era bialduten asi dira.

Abetoak lau edo bost urte bear dauz iru metro ingurukoa egiteko. Orregaitik Areitio soloan —izen ori dauko biberoak— larogei milla abeto daukoz guztiz, urtero-urtero, Gabonetan jatorkezan deiari erantzuna emoteko. Onetariko biberoak oraindik ugariagoak egon bear leitekez, mendietan egiten diran ondamen orreek geroago eta eskasagoak izan daitezkan.

Elantxobe-tik

Oitura zarra benetan mus jokoak euskal-erri osoan. Orain-

dik gaur be inbeste lekutan pozez jokutzen dan jokoa izan be. Ni txikia nintzala —ordutik onantz ba dira urte batzuk— gogoan daukok zelan bilduten ziran auzoko andra guztiak musean olgetako, gizonak trabenarantz egiten eben bitartean. Ordutik onantz urte asko igaro dirala esan dot. Baiña alan da be oitura onek lelengoko indarra daukola eztago zertan esan bearrik be.

Zaletasun oneri begiratuaz, Bizkai-ko bigarren kanpeonato antolatatu da. Kanpeonatu au urtarrillaren ogeta lauan asi zan ta aprillaren bigarren egunetan izango da garailleen azkenengo jokoa. Sariak apartekoak izango dira. Ara: lelengo egiten dabenentzako ogei milla peseta, edo bakoi-txak beste lagun bigaz Palma de Mallorca-n aste bateko bakaziñoak. Bigarrenentzako; amar milla peseta edo Barzelona-n bakaziñoak eskubide bardiñakaz. Beste sari batzuk be egongo dira errietan garaille diranentzako eta: trofeoak... Orain daukee muslariak zeozter egiteko era ederra. Domeka arrastietan ikasitako tasun guztiak ezerezean itxiko ete dabez Bizkaiko andrak?

Galdakano-tik

Azkenengo ille oneitan raza-ko txakurrak gatx gordin battegaz geroago eta geiago iltten doaz. Antza Frantzi aldetik datorren epidemia bat da gatx ori. Epidemi orren lenengoko ezaugarriak igaro dan uda azkenean agertu ziran. Arrezkero, or-emen pilloka il dira txakurrik edereenak gatx orren atzamarretan. Santander eta Araba aldetik agertu arren Gipuzkoa-n eta Bizkaia-n agiri da aurki geien. Gure uriburuan be, entzun dotanez, "Sociedad de Caza y Pesca" taldekoak arrituta dagoz euki dabezan txakurrik onenak il egin jakez-lako: guztiz berrogetamar bat il jakez seguru.

Oraindik betrenarioak ezin izan dabe billatu gatx ori zer dan eta nondik datorren. Lenengoko agerkaria begietan agertuten da, begiak gorrituten asten diranean. Gero txakurrak estul gogor bat arrapatuten dau, benetako txakur estul bat; eta azkenean ibilli eziniñ geldituten da. Gero geienetan eriotza etorten jako, edo osterantzean, zori orretan geldituko da betirako.

Errietako kazadoreak be apur bat arrituta egongo dira ziur. Beintzat nik ezagututen dotzenak olan dagoz, eta arrazoiz. Askok euren txakurrak —au batez be bilbotarrak egin dabe— baserrietan gorde dabez. Zeozter derrigorrez egin bear gatx onek txakur guztiak eroan ez daiazan.

Aita Salvatore Mitxelena, G. B.

Euskalerrriak izar dizdiratsu bat galdu eban igaro dan urteko azkenengo egunetan: Aita Salvatore Mitxelena izan dan gizon ospetsua.

Aita Mitxelena 1919-ko urtarrillaren 18-an jaio zan Zarauz-ko Etxebeltz izeneko baserrian. Berba oneek idatzikeran, konturatuten naz, bizi bazan gaur beteko ebazala berrogeta zazpi urte. Berrogeta zazpi urte: izan be edaderik onenean eroan deusku Jaungoikoak gure artetik. 1935-ko agostuaren 4-an praille sartu zan Zarauz bertako prantzizkotar konbentuan. 1951-an aprillako 20-an Profesa Nagusia egin eban eta urte bi geroago, abenduko 28-an, apaiz egin.

Gero, urterik geienetan erbestean bizi zala esan daikegu, euskal-erri urten bearra euki eban da. Kuba, Peru, Kolonbia, Paraguay eta Uruguay aldeetatik mixio saiokoak emoten ibilli izan da urte luza-roetan. Azkenengoak, barriz, Suiza-n egin ebazan, gure arteko andagozan erbestetueri lagunduten.

Aita Salvatore-k bere bizitz laburrean ainbeste opari eder eskeiñi deutsoz euskal-erri osoari. Beraz, bere izena euskaldunen artean oso ezagutua izan da, ziur, batez be olerkari, idazlari eta izlari lez. Ainbeste idazlan, olerki t. a. alde batera utzita, bere liburu bikaiñiak onexek dozuz: ARANTZAZU poema, bertsoetan egiña, AMA-SEMEAK ARANTZAZU-ko KONDAIRAN itz-lauzean, GURUZBIDEA, ta UNAMUNO TA ABENDATS.

Une oneetan, ain gaztetik bein Jaungoikoak eroan deuskunean, orain dirala urte batzuk ARANTZAZU poeman abestu ebazan bertsoak bere oroimenez gogoratu gura dotaz, ia danentzat ezagunak izango diralako:

Zuk zer dezu —Arantzazu!—
amets kabi, erti-leku?
Euskal-erria oso-osorik
kantari dijoakizu.

Izena bera —Arantzazu!—
kanta ederrena dezu.
Itz bakar ori nuntza orduko
kantari jartzen gaituzu.

Bilbon eskola geiago bear dira

Uretamendi eta Recaldeko auzotegiak

Uretamendiko barriotan eskola-parrokialak dagoz bakarrik. Umetxoai emen emoten jaken atenziñoakgaitik, beste barrio batzuetako umeak be onera etorten dira. Ara: Recalde-Betolazako eta Circunvalacion-ko umeak ei dira kontisu. Lau milla biztanle ei daukeez auzotegi edo barrio oneik. Baiña ume-azitza, arin baiña ariñago gora doa barrio oneitan, ezkonduak gazteak diralako. 285 umeikasleak, sexo bitakoak, lau maistra eta maixu bategaz bakarrik zainduak dira.

Zelako eskolak?

Eskola-parrokial oneik lonja batzuk besterik ez dira. Lonja oneik umetxoai zeozer irakasteko enpleaten dira. Jakiña; leku oneik ez dauke hijiene-serbizioirik ez argi natural bearrezkorik; eta gaiñera, leku oneik umedadez beteak dagoz. Umetxoak, estu-estuan dagoz klasean leku txiki onek ondo aprobetxatuteko. Berrogeitamar ume gitxienez igesko urtean ametitutu barik gelditu ziran. Edikaziño-Nazional Ministerioiko laguntza, maixuentzako ei da bakarrik. Aiuntamentuak emoten daben laguntza barregarritzkoa ei da.

Eskolak, umeak eurek garbitzen ei dabez. Butanoaren eta liburuen gastaok gurasoen kontura dagoz. Egia esateko, guraso oneik ez dira bape aberatzak, pobreak dira geienak —gorengokoak erdiko klasekoak— eta argiago esateko, geienak erri-garbitze serbizioa egiten dabienak.

Konsekuentziak

Ikusten danez, ume onei emoten jaken

- Rekaldeberri, Uretamendi eta Peñaskal: iru auzotegi kontuxu eskola barik.
- Dauzan eskolak lonja batzuk baiña ez dira, estu, txiki, eta illunak.
- Beraz, eundaka ume ta mutil-neskato gizonari derrigorrez jagokon eskola barik.

eskola-laguntza ez da naikoa. Ez da pen-tza be!

Problema onei beste gauzatxo bat jarri bear jako gaiñean. Denpora asko ez dala, oneitako eskola batzuek ustua izan bear ziran, eskolapean zear joian ur zikiñak eroateko tuberia apurtu egin zalako; ez dago zertan esanik eskolako klaseak ur zikiñez eta basatzez beteak gelditu zirala.

Au ikusita, Uretamendi-barrioko eskolak krisis aundi baten dagoz. Uste dogu eskola-kargua dauken gizonak krisis oni azkena laster emongo dautsiela. Bestela ez dakit nora joango garan. Zirkulo batean sartzen gara: erri-jendeak ezin igo gora goikoak ez dabelako laguntzen eta goikoak ez dabe laguntzen... ez dakigu zergaitik.

Nukleo zentrala

Gitxi gora bera 22.728 biztanle izango dira Rekaldeberriko parrokiko nukleo zentralen. Ezkonduak gazteak dira emen be eta ume-azitza goraka doa barra-barra. Esate baterako, 1964 urtean 675 bataiatu ziran. Baiña guzti oneintzako eskola-parrokial txiki bat besterik ez dago sexo bietarako. Au dala-ta, barrio onetako umeak, beste urriñin dagozan zentro ofizialetera joan bear dabe zeozer ikasi nai badabe. Jakiña, ume onen familiak ez dira aberatzak eta ba-dakigu

zelako molestiak ekarten dabezan urriñara joateak. Au dala-ta, ba, Rekaldeberriko eskola-problema ikaragarria da. Aiuntamentua eta Enseñanza Primaria-ko Inspeziñoak ba-dakiez zelan dagozan problema oneik, eskola barriak egiteko proiektua eginda dauke-ta.

Ia, ba, noz asten diran goikoak proiektua errealidade biurtzen. Premiña ba-dago... eta ikaragarria!

Peñascal auzotegian

Duda barik esan geinke Peñaskaleko eskolak dirala barrio oneitako zabalenak eta onenak. Baiña emen be ez dira kabitzen lenengo enfeitantzako mutiko guztiak. Pasa dan urtean eun umetxo gitxienez atenditu barik gelditu ziran.

Barrio onetako biztanleak 6.000 inguruan ibilliko dira. Eta beste barrioetan lez emen be ezkontzak gazteak dira eta ume azitzak goraka arin doazanak.

Amaika maixuk zaintzen dabez ume guzti oneik. Maixu oneik Edukaziño-Nazional Ministerioaren soldataz eta baita Aiuntamentuarenaz be bizi dira.

Emen be, oraindik, besteak lain txarto ez dira bizi, baiña urte gitxi barru beste barrioetako problema sortuko da: eskola faltea. Origaitik goikoak espabillatu beitez.

Karmel.

(Lenengo orritik)

eta ez arraza, edo edade, edo mailla batekoena bakarrik.

Baiña askotan entzuten dana da: "Ezitzea baiño gauza gatxagorik eztago, gaur batez be". Bear bada, guztiok daukagulako norberaren edukaziñoa be konpondu bearra, eratu premiña. Dana dala, gure gaztedia ezi bear bada, ezingo dau izan guraso edo bat-edo-beste edukatzaileen buruaustea bakarrik. Danok daukagu emen erantzun-bear aundi bat. Edukaziño on batek giroa be alakotxea bear dau, "ambientea"; txorikumak beren kabian izaten daben epeltasuna. Eta giro ori danok egiten dogu: gizarteak, ideiak, jokaerak. Bakoitzaren pixkanarekin jasotzen dogu, jaso be, bizileku izugarri au, gizar-te au. Eta bear-bearrezkoa dogu gazteok aurkituko daben "mundu" au onuragarritzkoa izatea, beren bizitzan erein dan azi ona erne, ta in-

dartsu etorri daian.

Ala ta guzti be, gurasoak dira beren semeen edukatzaile berezkoak.

"Gurasoak emon deutsoe euren semeeri bizitza, bai, eta beraz zorrotz beartuta dagoz euren umei eziera ona emoten. Onela ba, gurasoak dira umeen ezitzaile lenengo ta nagusienak. Familian umeak ezitzeko obligaziño au aundia baiño aundiagoa da, eta berau palta bada, oso gatx emon daiteke berorren ordez besterik. Gurasoen obligaziñoa da ba, beraz, familiko giroa maitasunez, Jaungoiko zale-tasunez, ta gizonenganako biotz-beratasunez osatzea. Eta famili giro onek lagundu bear deutso seme-alabeen ezierari euren buruarekin eta gizonetikiko artu-emonetan osatua izaten. Au gaitik, familia da gizar-te guztiok bear dituezan alkartasun birtuteak ikasten diraneko lenengo eskola'.

Sukaldean bizitzen dabe semeak eurek lenengoz ezagutzen daben gizar-tea. Familian bidez sartuko dira gizar-tean eta Jaungoikoaren Errian.

Ezin leiteke, ba, aaztu gaztedi ezitzean familiak daukan inportantzia. Ez alperrik Elizak gurasoei egiten deutsoen deia, batez be guraso kristauei, euren aparteko eginkizun orretan adoretzu ta leial joka daien.

Umeak ezitzeko obligaziñoa, berez gurasoena izanik, gizar-te osoaren laguntza bear dau; eurek ezin daikenena, emoteko; euren akatxak osatzeko; euren eskubideak zaintzeko, eta baita bear diran eskolak eta unibersidadeak sortzeko. Eskolak eta unibersidadeak batez be, arreta aundiz artzen ditu Konziliuak.

"Ezie-ako bide guztien artean, eskola da derrigorrekoe-na. Eta eskola, bere egitekoa

ondo betetzeko, eten barik saiatzen da buruko almenak landuten, eta era berean, gauzak zintzo ikusteko zentzume-na zabaltzen dau, gure aurreko gizaldiek eskuratutako aberastasunetan aurrera sartu arazten dau, benetako baloreak ikusten laguntzen dau, profesional bizitzarako eratu egiten dau, izakera eta mailla desbardifietako ikasleen artean adiskidezko artu-emonak sortutzen ditu, alkar ondo artzen lagunduaz".

Ederra eta bear-bearrezkoa da, ba, Konziliuak diñuanetz, eskoleta ezitzaile guztien eginkizuna. Eurok dira giza-dieren izenean gurasoei seme ezitze bierrean laguntzen deutsoenak. Premiñezkoa dau, beraz, gizar-teak ezitzaileeri laguntzea, beren bokaziño bikain ori egoki bete daien, Orrela jokatuaz, bere buruari on baiño ez deutso egingo gizar-teak.

Euskerea zelan erabilli

Euskaltzaindiaren agiria euskal berbeeri buruz

Euskaltzaindiak, idazlari ta izlari-eri zuzenbide batzuek eskeiñi naien, eta asko zuzenbide orreen zain-antzean dagozala jakitak, onako agiri au azal- duten dau:

Oñarri-legea:

Iztegi-saillean ezta bidezko berba asmatuetara jotzea ezin bestez baizik, eta orduan be berben erabidean izkuntzaren joereak gordeaz. Ori iztegiari gagokozala. Gramatikaren barrutian, ordea, ezta sekula zillegi asmatuten ibiltzea edo izkuntza aldatu nai izatea.

Euskal-berbak zein diran jakiteko bidea

Eta iztegiaren auzian xeetasun geiagoregaz garbitu naiez, euskal-berbak zein diran, au da, euskal-literaturan erabiltzeko berba jatorrak zein diran jakiteko bidea ta neurria finkatu dau aurrenik Euskaltzaindiak. Euskal berbak dira euskerea bizian sustraituak dagozanak. Sustrai ori zenbat eta sakonagi izan, ainbat eta eskubide geiago dauko berba batek erabillia izateko. Berba baten zaluneak, antziñatasunak eta idazle zarrak berba ori erabilli ete daben jakiteak, asko esan gura dau berbaren sustrai zenbateranokoa dan neurtzeko. Sustrai aundiko itzak, bada, euskal-itzak dira, naiz eta erderatik etorri. Bada gure iztegian olako berben pilloa: jatorriz kanpotik sartuak, baiña euskeran gogotik errotuak dagozanak. alegia. Beraz, etxeko biurtuak daukaguz, gure gureak dira berba orreek. Euskal-berbak dira, bada, erderatikakoak izanarren. Berba orreek eskubide osoz erabilli daitezke, eta orreen lekuan erabiltzeko asmatu diran berba barriak ez tira geieneran euskal-berbak eta ez dabe areek ainbat eskubide erabilliak izateko.

Ona-emen olako euskal-berba jatorren zerrenda bat. Erderatikakoak izanarren, etxeko biurtua daukoguz eta emandako neurriaren araua, euskal-berba jatorrak dira: ...alkate, amodio... arraza... birtute... desegin... gramatika... gloria... kafe... karidade... kontra... obeditu... partitu... pentsatu... seiñale, testamentu...

Euskaltzaindiak, bada, berba oneek eta antzekoak diran beste asko, eskubide osoz erabilli daitezkezala erabagitzen dau, euskaldunak, jatorrak eta garbiak diralako. Eta idazle ta izlari-eri erabilli daitezkezala eskatzen deustoe, berba asmatuetara jo barik.

Berebat, izkuntza berezien gainetik zabaldurik dagozan kultura eta zibilizaziozko berba ontzat artzea eta erabiltzea Euskaltzaindiak begi onez ikusten dau. Adibidez: politika, teknika, literatura, liturjia, metro, kilometro, ta abar.

1959, aprillaren 2-an.

Euskeraz euskeratzaz zergatik?

Euskeraz euskeratzaz gelegi idazten ei da gaur.

Beste izkuntzetan ez ei da olan gertatzen. Esate baterako, gasteleraz asko idazten ei da, baiña ia bapez gastela izkuntza gaitzat artuta. Ta guk be beste onen jokerari jarraitu biar ei geuntsake. Euskeraz euskera ez beste gai guztietan idatzi.

Ba dauke bere errazoa au diñoskuen aldizkarietako zuzendariak. Euskeratzaz idatzita eurengean eltzen dan guztia argitaratu biar balebe beste ezerentzat to-kirik ez leuke izango.

Bai, ba dauke errazoa, baiña ez oso osua ta gitxiagorik be ez.

Gaztelarrak eta gu ez gagoz bardin izkuntza kontuan. Gastelar izkuntzak ez dauko galtzeko arriskurik.

Beraz, il agiñian balego lez ta indartu naiian au ta bestea egin biar dala-ta ez da iñor asiko.

tuak ez dira oso osorik baliokoak guretzat. Tarteka euskeratzaz itz egitea biarrekoa da. Jakiña, beti gauza bat eta modu bardiflean esatekotan ez.

Origaitik euskeratzazko idazlanari geienetan abegi kaxkarra egiten deutse-lako aldizkarietakoak, loterian jokatzan lez asten gara gai oneri ekin nai deustagunian, bai baiño ez ziurrago izango dan ustean; argitaratzeko baiño otarrarako ziurrago izango dan ustean.

Zelako euskerea: garbia ala loia?

Dana dala, ok eginda gaukazan gai bateri ekitera noa: euskera loia ta euskera garbia.

Euskerea maite dogu, geuria da ta maite izan biar; baiña bestela euskerak goragarri gitxi dauka. Antxiñakoa dala ta gaur beintzat senide ezagunik bakoa. Onetxek dira batez be gure berbetaren gauzarik baliotsuenak, izkuntza jakin-

DEI BAT

Aspalditik danok barne-barnean daroagun itauna da auxe: euskerea zelan erabilli bear dogu gaur? Ainbeste idatzi dalez, emen ez da esango aparteko gauzarik. Naikotzat eukiko doguz aletin onek gure arpidedunen kezkek asetzen badoguz.

Euskera garbia gura dabe batzuk, erdera usaiñeko berbarik ez daukon izkuntzea. Eta onetariko berbaren batzuk erabilli ezker, euskerearen miragarritasuna galdu egingo dala pentsaten dabe. Ez orixe. Benetako jakitunen eritxiz, ez dago or gure izkuntza maitearen balio andiena, berboa eta itzen joskeran baiño: berbak ondo tokiratutean, itzak alkarren urrengo imintean. Onegaz ez dogu esan gura gure aldizkariak ibilli dauazan bideak beti izan dirala onenak. Euskerearen benetako balioa adierazi gura izan dogu, beste asmo barik.

Baten batek itaundu leikit: Orduan zer egin errian dabilzan erderazko berba pillo orregaz? Erantzuna naiko erreza da benetan. Ara: Ontzat artu daiguzan danok Euskaltzaindiak emondako arauak eta idatzi daigun parra-parra beste eztabaida barik. Es-ke zer irabazten dogu eztabaida orrekaz erriak oraindik euskeraz irakurten ez ba daki, edo, beintzat, erreztasun askorik ez badauko?

Eta bukatuteko beste au be bai: zeozer idazten dogunak, eztabaida lar euki doguzala, zelako euskerea erabilli bear dogun jakin naiian. Oba leitekigu eztabaida orreek alde batera itxita, erriak errezerre ulertutako berbetan idatziko bagendu aurre-rantzean. Geroago, euskerea irakurteko erreztasuna lortuta gero, eukiko geunke segurutik gure izkuntza orraztuteko, txukunduteko, apainduteko ta garbituteko denporea.

Ordurarte itxi daiguzan, bada, alde batean eztabaida danak.

Ostera gu euskera beragaitik asi gara lanian euskera saillean. Gure aldizkariak euskeragaitik bakarrik sortu dira, euskerea indartu daitean. Guretzat euskerea da lenengo gaia.

Ala ez balitz obe genduke milla bidar erderaz idazi. Eusko idazlerik geienak (neu ez noa emen sartzen) euren esan naiak erderaz obeto azalduko leukezalako ta danok erderaz idatzitakoa obeto uler-tzen dogulako.

Barriro diñot erdal izkuntzetako kon-

tsuak arreta andiz beroni begira ipinten dituan.

Bai, auxe da gure euskeraren zerik goragarriena: beste guztiengandiko berezitasuna. Iñoren antzik ez eukitea.

Euskal idazle batzuk euskeraren alderdi eder au bere berezitasuna agertu naiian lez idazten dogu. Ta jokera zuzena auxe. Maite dogun edozeri bere goraltzak agerian jartzen deustaguz.

Gurasoak euren umeen alderdi onak agertzeko egoten dira maite dituelako.

bear dogu gaur?

Seme argia badauke ez dabe aukerarik galduko ori esateko. Begi ederreko alabari premiña barik beriala ez deutzaz be-taurreko baltzak amak jantziki.

Ostera beste idazle batzuk, gaurko idazle gazte askorek, euskeraren goragari dan alderdi au ondatu naian lez idazten dabe.

Ara azkenean diñodanaren agergarri ain entzute andia artu daben idazburua: "Historia triste bat".

Nobela, antzerti, nai olako edozeri milla izen ipiñi daitekez, bere gaiari jagokozan milla izen. Antzezlan orreri be bai euskera garbi egiteko ardura apur bat euki ezkeru.

Ta zergatik ez dogu euki biar ba garbi egiteko ardura apur bat?

Idazle askoren errua

Erriagandik ez gara urrun ibilli biar idazliok, baiña ez da bere bide okerrari orpoz orpo jarraitu be.

Erria premiña barik euskal itz jatorrak bastartzen doa gelditu barik. Ta idazle batzuk erria bera baiño be aurrerago doaz euskerea alperrik galdu daben bide loi orretan. Jakintza aldizkarietan "kontra" "deretxoa" ta alakoak irakurten dazanian amorrotuta gelditzen naz. Orretarako bai ez dagola deretxorik Zein da, esate baterako, JAKIN aldizkariaren irakurleen artean "aurka" eta "eskubide" itzak zer esan nai daben ez dakiena?

Euskerea ulerterreza egitea beste asmorik ez daukela idazle batzuk dirudi. Ulerterreza egitea danori jaku atsegin ori lortzeko euskerea ondatu ezik. Baiña emen beste ezegaz arduratu barik izkera erreza egin nai dabenen idazkerea kal-

JAKINTSUAK DIÑO E

Iruña'n batu ziran jakintsuak Sarasa Juanto, Mitxelena, Maluquer de Motes eta beste askok geure euskerak asko balio daukela esan eben, zaindu egin bear dala, berak merezi bai dau gure neke eta laguntasun apur bat. Antxiña-antxiña izkuntza dogu euskerea. Ez da mundu osoan bere antza apur bat dauan berbetarik. Euskera gordetea Velázquez edo Greko'ren kuadro bat gordetea baiño milla bider geiago litzake. Eta begira zenbat milloi emoten diran orreitariko kuadro bategaitik. Eta guk ez ete dogu ezer be egingo geure ama lez maite dogun euskeragaitik. Geure eskuetan iltzen itxiko deutzagu, indar pixka bat egin gura ez dogulako.

Tu zuk esango deustazu: Zer balio dau ba euskerak, zenbat diru dakarst niri euskerari lagunduteak? Bapez, dirurik ez deutzu ekarriko. Baiño, gizonak gauz bereziak izaten ditu: erria, fedea, baserria, apellidua, eta gauz orreek biotz-biotzetik maitatuten dauz. Guk ori dena ta batez be euskera maitea daukaguz gauz bereziak, apartekoak, eta ori geuk maitatu eta zaindu bear. Ara gure jakintsu euskalzaleak ze erakusten ederra emoten deuskuen. Euskera alde

batera itxita beste gauzekaz askoz be diru geiago irabaziko leukee, baiño ikusi dabe euskeraren balioa, ta gogor ari dira euskera ezagutua eta zabaldua izan daitean.

Zenbat maite dozu euskerea?

Ezagututen dodaz euskeraren alde lan bildurgarria egiten ari diran gizonak. Eta guk zer egiten dogu, edo zer egin geinke. Lenen-lenengo euskal errebits-teai lagundu. Ez uste dirurik ataraten danik eusko aldizkariakaz. Zure errian "ikastola" edo euskeraz dana erakusten dan eskola ipiñi gura ba dabe, eskeiñi zure laguntza, zure izardi apur bat orretarako. Etxean, errian, semeen artean euskeraz berba egin. Ez daiela euskerea iñolaz be aaztu. Euskeraz idazten edo eskribiduten saiatu. Besterik ez bada bi errenkada egunean. Zeuk ikusiko dozu, euskerea maite badozu, zer geiago egin zeinkean.

Atletiko de Bilbao, Aurrera, edo Bermeo'ko ekipoagaitik orrenbeste diru emoten ba-dogu, zelan geure euskeraren alde apurtxo bat ez emon?

tegarri dala euskerarentzat esango neuke

Izkera erreza egitea ez da dana gure artean; izkera erreza egitea balitz gure ardura bakarra ba dakit gaurko euskaldun guztiak ulertzen daben izkerea zein dan: erdere, gaztelerea.

Ez naiz ni gai oneri luze ekiteko ustean. Ori lenago eginda daukat. Bakarrik auxe

esan nai izan dot, zera... euskeraren doai bakarra edo ia bakarra ez daigula ondatu.

Euskerea beste izkuntza guztiakandik berezia da ta itxura orregaz erakutsi biar dogu geure idazlanetan.

Ez deritxazue, gazteak?

Kamiñazpi.

Euskeraz leiduten eztakigu!

"Baiña euskeraz leiduten eztakigu guk" ta "zuek euskera garbiegia egiten dozue zeun errebista orretan" eta olako asko entzun bear izan nebazan "ANAITASUNA" zabaltzen ibilli nintzan egunetan. Beste askoren agoetatik olako zerbait be entzuten zan: "Gaur euskeriagaz ezin daiteke iñora urten, euskerak zer balio dau ba? Plazara joan da be beti erdera egin bearra eukiten dogu".

"Euskaldunak gara ta euskeraz berba egiten dogu, baiña leiduten eztakigu" Ta zer egin geinke gaur leiduten jakin baruk? Aztu egin bearko ete dogu ba guk geure euskerea? Orduan zertarako euskaldunak gareala arro-arro esan? Ori baiño geiago euskerea maite eztabena, ezta euskalduna be ia!

Ze ardura artzen dogu guk, euskaldunok, gure euskeraren alde? Pozik entzuten doguz sarri aintxiñako esakera zarrak: "Euskaldun fededun" eta antzekoak, eta barru-barrutik esan be esaten dogu bein edo bein: "make-

toak izan arren albokoak edo eztira izan persona txarrak" ona izateko derigorrez euskaldun izan bearra eukiko ba-lebe lez.

Euskera garbiegia egiten dogula? Ba ez pentsa gero! Keja asko eta asko etorten jakuz erderatik artutako berba asko, edo geiegi, erabilten doguzalako. Euskeraren alde egiten doguna baiño geiago egiten ezpadogu, onek esan gura dau bape eztogula maite guk geure euskerea. Eztaukagula euskereagan federik, ez gareala euskaldun benetakoak.

Euskeratzaz askok interesik ez!

Israel naziñoa etzan formatu ardu-raz gauzak artu barik. Ebreo eraz ia 2.000 urtetan etzan iñun be egiten. Baiña gaurko naziño ori formatu ebena gogoz eta arduraz artu eben euren berbeta ori. Ta ara, gaur Israelgo naziño orretan danak ebreo eraz berba egiten dabe.

Gure artean barriz, ze interes eta ze ardura! Joan diran azkenengo urte oneetan euskerea geroago ta gitxia-

gorantz doa. Gatxa dala-ta ixten ba-dogu euskaldun izatea be itxi egin bear geinke.

Egia da euskeragaz artu emon aundirik ezin doguna euki, baiña origaitik balio bakoa ete da millaka urteetan zear bizirik eta sendo iraun daben gure euskerea?

Egia da eztogula eksklusibistak izan bear. Guk bakarrik eztaukaguz munduan diran gauzarik onenak. Daukaguzan gauz onak, besteekin obetu egin bear doguz, baiña geuretasun ori galdu barik. Gure alperkeriagaitik gure euskereak eztauka beste berbetak dauken errestasuna. Antza, guk "besteak ekin eta gu frankill" pentsaten dogu, edo beintzat egin. Ekin bearrean danok gagoz, danona bai da euskerea; galtzen ba-da danok galduko dogu, zabaltzen ba-da, edonun euskerea pozik entzungo dogu.

Euskalduntasuna gorde nai ba-dogu, euskerea sendotzen alegindu bearko dogu. Ta ez gaur arte besteeri itxi erazo guzti ori.

Jesus Mari.

Euskerea ala erdere

TXOMIN KIRRUREN BARRIAK.

Txomiñik asko egongo da, ziur, Bizkai aldean. Baña niri zer ardura deuste ba guzti orreik! Lengo baten Txomiñ Kirru ezagutu nebanetik, niretzako eztago Txomiñik, Kirru izan ezik.

Ta, ez deustazue siñistuko baña, ANAITASUNA errebitatxu au irakurten topa neban Bermiotik Mundakarako bidean.

—Egun on, Txomiñ!

—Egun on Jainkoak!

—ANAITASUNA irakurten orduan.

—Bai ba. Denporia zeozelan emon bear da-ta.

—Denporia emon? Eztaukazu biarrik ala?

—Biarra... biarra beti dago, baña gustokorik ez.

—Gustokorik! Egon bada go ba munduan biarrik gustokoa litzakenik?

—Niretzat bai ba.

—Ze biar edo?

—Esate baterako, oraintxe berton begi-gorri bat, bixigutxu bat oriotan prijitu ta jatea.

—Ja, ja! Ezara makala! Biar guztiak olakoak balira, alperrik egongo litzake gero munduan?

—Bueno, zeozer esan bear da-ta. Baña, kontuak kontu, badago ba atsegin-atsegiñez egingo neuken lan edo biar bat.

—Beste bixiguren bat jan, Txomiñ?

—Tira. Kirru edo Mirru deituko deuste baña, enatxatzu orrenbestera. Zera: ANAITASUNA errebita onen arpide edo suskritore izan naz joan diran urtietan. Pozik irakurri dot illero-illero. Ta hadakizu zer pentsa dodan? Neuk be zeozer egin neikeala ANAITASUNA-ren alde.

—Ezta izango! Euskalzale zaitut orduan zu be?

—Orixe bai. Amaren sabelletik. Morokilla jaten asi baño len.

—Poztuten naitzu, Txomiñ. Bete-beteen topa zaitut gaur bidean. Neu be asmo orregaz nebillen ba aspalditxuon, ANAITASUNARA zeozer idazteketan.

—Orduan biok egingo dogu lan alkar artuta. Baderitxazu?

—Ezin obeto.

—Nik, barri edo zar, albisteak ekarriko deustudaz or-emendik batuta, ta zuk papelean jarri. Eginda?

—Bota bostekoa, Txomiñ. Berbarik be ez geiago. Datoren illetik aurrera, praka zarrakaz bada b, agertu bear dogu ANAITASUNA errebitan. Ia abegi onik egiten deuskuen irakurleak. Baiezkoan nago. Ta ezpalitz he, ez ikaratu. Guk geuk heintzat ondo esango deustagu alkarreri, ta ezta gitxi. Guazen Takon'neko trab'nara. Bixigua ta ardao-txurrueta, gaurkoz, neure kontura.

FELIX BILBAO.

MUNDUA MUNDU

“Geminis”-en egoetan


Alan esaten neban nik dakitan euskal erri koxkor bateko gizon arek: “Ba nik egia esan, illetargian beste gizon batzuk aurkituten bazituek, ez deuat geiago Jaungoikoagan siñistuko”. Kirten alakoak esan ori, beste gauza askoren artean —esan bearririk ez— iru oneek be jakin ez-ta: bat, illetargira allegatuko ete diran; urrengo, an gizonik egon daiteken, eta gero, ango ustezko giza-bizitzak Jaungoikoa ukatzearegaz zer-ikusirik daukon. Apostu, azkenengo bietan galdu baietz: jakintsuak diñoenez, an iñor bizi ezin daitekelako bata; bestea, barriz, ...Pernando Amezketarrarena eztan astoari urrea eskatutea litzakelako.

Lenengoko egalariak: Gagarin, Titof...

Orain lau urte egin euskun lenengo egakadea Yurin Gagarin Errusikoak: jira-bira osoa gure mundu onen inguruan. Gogoratu egizuz arrezkero beste izar-gizon oneek: Titof, Glenn. Carpenter, Nicolayef, Popovich, Schirra, Cooper, Bicovsky, Tereshkova emakumea, ta ondoren biñaka irube bai beñ beste bost ega-aldi. Ta izar-arte goi areetatik ekarri deuskuezan albisteak? Goi-tarte areetan ei dago ixiltasun sekula ezentzuna, andik izardi zabalean ikusten ei diran eztaikit nik zenbat kolore ederreko argi ikusgarriak. Leonof Errusitarrak, bere ega-kaiolatik urtenda, ugeraldi antzeko bat be asmatu ei eban egaldi oreetako betean-da! Gerotxoago White amerikanoak egin eban bera. Bietan bardin: zabaldegia goian beian, mutu, illun eta otz; erdian gizontxoa txorizugarri, ibillera baldarrean lenengo pausoak emon ezinda. Eta an be-bean, urrutian, giza-gaixoon bizitoki biribil evel au laño-ixeretan bilduta. Errusitarrak zazpi minutuko paseotxoa emon eban; iparamerikarrak amazazpi minutukoa.

Lau urteotan amalau aldiz emon deutso arpegia gizonak izarrari: amalau ega-aldi; luzeena zortzi egunekoa oraintsuarte, Charles Conrad eta Gordon Cooper-ena. Amerikanoek zelan astindu ebezala gero orduan poz-kanpaiak?

Eta aziño orregaz gitxi ba geunka lez, orain “Geminis VII” barriz! Borman eta Lovel —amerikanoak biak— aste biam jira ta bira gure ludi zar oneri zimur danak ikusten. Orrek egin deuskue markea, orrek! Abenduaren 4-an bota ebezan “Titan” koetearen mustur-punttan, eta or ibilli dira, batean Laser-errañuaregaz didizka, bestean ega-jantzia erantzi, bizarra luze ta egiñari garbi-aldi bat emoteko asti barik.



Amerikanoak errusitarrak baiño geiago

Norteamericanoak zeozer geiagoren asmotan ebiltzen antza. Lengo batean “Agena” koeteak errebita egin eutsetetik, au eukaten orren billa urten bear eban beste “Geminis VI” ega-kaiola, ezertarako barik. Etziran orduantxe gustora galditu yankitxoak! Bertan bera utzi? Olakorik! Ez, goian ebiltzan izar-gizon bieri dei luze ta bero bat bialduko eutsoen “Geminis VI” enbudu egalariaren bitartez. Alan, etorri zan illaren amabosta, ta orduan bai politto urten ebalta gora-bidean koeteak. Arrastiko laurak baiño len-txuago egaka egin eban Schirra ta Stafford izar-gizon barri biak. Ba joazan beste bien billa. Ez eban Martin Txilibitu-k bere aizeagaz olako

zori onik euki! Jira-bide naiko luzetik biribillera igoaz, sartu ziran bide zuzenean, eta zortzirak inguruan begizatu eben “Geminis VII”-garrena, aurrean joala. Emon-da emon, bai laster arrapatu be. Ta zelan gaiñera; axe bai zala alkarregaz egaka egitea; ega-kaiola batetik bestera ezta metro bi be, Borman-en da bizartzarra ikusteko eran.

Jaungoikoaren billa

Guzurra dirudi, gizona aiñ kaxkarra izan-da, ainbesterañño irixtea: kaiñaberea, auleriaren auleriz; baiña “kaiña-

bera pentsalaria”. Onexek eusten deutso bere aurrerebearrean. Biotzak sakatu, adimenak argi, naimenak eutsi: ortan dabil gizona, arimaren txoko gordeak miatu gura dauz. Izadiari bere goibe-barru arrigarriak ikusi gura deustaz. Ezer probetxokorik urtengo ete dau? Euki dai-gun fede! Ez al gaitu Jaungoikoak aingeruen urrengo egin? Alde ortatik ba dauko gizonak almena. Zeruak, barriz, Jaungoikoaren aintza ixpillatu ta abestuten dabe. Azkenean, “kaiñaberatxo” au, adimen bidez egaka, illetargira baiño gorago, izarririk izar Goikoaren inguruetara iritxiko da, ta Ibai eder garbi zabal onetan ur-etz gozoetan josita, bere biziaren zoriona xurruptuko dau.

A. ZURUTUZA

Eiztaria ta deabrua

Buztintza'tar Errose'k
eginda, ta Kerexeta'tar Jaime'ren ardurapean argitaratuta.

Igande goiz baten, Atxurkulu basetxeko gizona, goizean-goiz mezea entzunda, iskillu edo eskopeta bat sorbalidan dingilizka ebala, basora txoritan joan zan.

Egun guztian basorik-baso ta mendirik-mendi txori billa ibillita gero, arri-mokil baten ganean atsedena artzen jarri zan.

Arrausika ta lo-zorian egoala, inguruko landalxoan asto aundi bat bedar guria jaten ziarduala ikusi eban. Eta eiztaria, begi ta belarri, asto baltzari adi-adi jarri yakon. "Onako zoririk orraitiaño!... —iñoan—. Orra, eixera geiago nekatu bagarik joateko aukera ederra nun daukadan bertan!"

Eta ori esanda, beste bagarik, astoari bizkarrera saltu egin eutsan; eta aren ganean patxaraz-patxaraz jesarrita, astoari deadar aundiz esan eutsan:

—Arre, arre, astoa; orain lan eta gero lastoa...

Ori entzunikoan, asto baltzak be berba egin eban:

Basoa-gora, mendia-beera, sasitza-zear labar-ertzera... Arre, demoniñua!

Eta geiago bagarik, asto baltzak gure gizona, ikotika ta abiada baten, baso ta mendirik-mendi bildurgarriro erabili eban.

Alako baten, labar aundi baten txuntxurrera eldu ziran; eta, orduan, astoak, bizkar-ganean eukan gizona, labar-erpiñetik beera jaurti nai izan eban.




Baiña, bere asmo okerra ezetara be ezin bete izan eban, indar miragarri batek bere lau anka eutsiten eutse-lako.

Barriro be, astoak, bere atzeko ankak labar-erpiñeko zuloan sartuta ebazala, aurreko anka biak burua labarra-beera ipiñita, eiztaria bere bizkarretik jaurtiteko alegiñak egin ebazan. Neke ta alegin guztiak alper-alpe-

rrik, baiña... Gizona ezetara be ezin kendu izan eban.

Orretan, elizatzoko txiliñak ots berezia egin eban, esanez:

—Txarri demoniño! Gaur mezea entzun daualako, gatzik ezin egin oraindiño! Ire txarrerako ta gizonaren onerako egiten yoat nik "din-dan"!



Eta elizatzoko txiliñak "din-dan, din-dan" eten bagarik joteari ekin eutsan.

Orduan, astoak, gatzik ezin egin eutsala igarri ebanean, anka-urtika ta ikotika asita, bizkar-ganeko gizona bide-ertzeko landa bedartsura amorru aundiz jaurti eban; eta ori eginda, astoa bera, arrantzaka ta apatxoska, labarra-beera su ta gar joan zan.

Bitartean, eiztariak, landako bedartzan, txori-abeti ederren artean, lo gozozoa egin eban.

Aitaturiko asto baltza, deabrua izan eiz'zan.

* * *

Beste domeka baten be, arratsaldez, Atxurkulu'ko gizona ber-bera, Agurtza edo Errosario deuna otoitz eginda gero, basora txori-billa ta erbitara joan zan. Eta

gure gizonak, basoan sartu zanezko, bere inguruan erbi pilloak saltoka ta ikotika ikusi ebazan. Eiztariaren poza! "Au dot au... onakorik ikusteko be! —iñoan pozez beterik—. Daunbada bat az amar bat ardura bagarik il daitekezak-eta!..."

Eta ori esanda, daunbada bat jaurti ondoren, amar erbi beingoan eskuratu ebazan. Orduan, eiztaria ezli-

bitsetan jarri zan. Alako eizarik bere bizian ez eban egin. Eta erbi-txorta ederra eskuetan ebala, illuntzean, etxerako bidean, pozez beterik jarri zan. Eta ibilli ta ibilli eginda, bide-erdian gaba egin yakon.

Alako baten, Oxin-baltzatingurura eldu zan. Eta Oxin-baltza'ko ur-ertzean, illargiaren argitan, oillar gorri-go-

Onetan, baiña, Oxin-baltzabarrutik ots ikaragarri bat, deadar aundi bat urten zan:

—Ori or dagoan ori be, ekarri egiztak ona! —esan eban ur barruko otsak.

Deadar ori entzun ordukoxe, ur-ertzeko oillarrak kukurruku zolia egiñaz, esan eban:

—Ez, gaur ez: Errosarioa ondo esan dabelako, orren ondora eltzeko be eskubiderik ez yaukat-eta...

Orretan, oillar gorria, beste kukurruku zoli batzuk aizetan itzita, ego-ots aundiak egiñaz, Oxin-baltza'ren barruan sartu zan.

Berba ta ots arekaz, Atxurkulu'ko gizona estutu ta larritu egin zan. Eta erbi-txorta eskuetan eta iskillu edo eskopeta sorbaldatik ebala, etxerako bidean "Aitarenka" baten jarri zan.

Ur-ertzeko oillar gorria be, deabrua izan eiz'zan. Eta deabru arek, eiztaria basora Errosario dauna otoitz eginda joan zalako, ezin eroan izan ei-eban beragaz...

ABADEA NAZ

Abadea naz, abade legez
Itz egin bearra dogu;
Orretarako filosofi ta
Teolojia badogu.
Egia beti danen gainetik,
Ori da gure alburu,
Kriston ordezeko egizko artzai
Zuzenak izan naibogu.

Egi aldezeko jokabideak
Errria dau zuzenduten
Abade onak alderdi ori
Ondo dabie ikusten.
Arazu ortan gabiltzazanak
"Pacem in terris" azaltzen
Emen gabillez erririk-erri
Aize freskua artuten.

Abade onak gazte artian
Dauka lanik ederrena
Egi-bidea ondo erakutsi
Sendotu euren barrena.
Gizon-legea indartuteko
Ori dogu bearrena
Baiña orretan gabiltzazanak
Dogu izenik txarrena.

Gaztedi ona daukagu, baiña
Ondo bear dogu azi,
Nundik ta nora zelan jokatu
Egizko bidean ezi.

Errria zelan zaindu bear dan
Egin bear dau ikasi,
Aiz egiteko eskubiderik
Guk ez al dogu merezi?

Gure erria gura badogu
Sinismenean sendotu
Gazteak gizon ataratea
Egin bear dogu lortu.
Gero bear dan jokabidea
Eurak egingo dabe artu
Gaur onen kontra gabizen danok
Egiten dogu pekatu.

Errazoi gabe baldin badatoz
Indarrez agintariak
Gu orren kontra jarri bearra
Bidezko da Abadiak.
Danok daukagu zaindu bearra
Errian eskubidiak,
Orretarako gertau bear dau
Bear dan lez gaztediak.

Abadea naz, abade legez
Itz egin bearra dogu,
Orretarako filosofi ta
Teolojia badogu.
Egia beti danen gainetik
Ori da gure elburu,
Kristo'n ordezeko egizko artzai
Zuzenak izan naibogu.

Judutarrak ez dabe euki errurik

- ◆ Batzar Nagusiak judutarretaz erabaki barri bat artu dau
- ◆ Ori dala-ta, kristiñau batzuk larrituta dagoz
- ◆ Judutarrak zergatik izango dira, ba, madarikatuak?

Erriaren ezin egona.

Gaur-egin —danok ikusten dogunez— toki asko dira lurbira zear, gora-bera aunditan sartuak. Nork ez dau ezagututen Ego-Amerikaren egoera ezin egona? Asia aldeko laterrien arteko burrukak?

Erri-alde orien egoera ezikaitza, neke ta atsekabe ugariren iturburu da, bai an bizi diranentzat, bai benetako gizon ta kristiñau diranentzat. Esan daikegu munduaren etorkizuna, alderdi orreetantxe daukogula.

Ez da neure asmoa buru-auste orreek guztiak aztertutea; ori alde batetik luzegia, ta bestetik ezifizekoa izango litzakit. Begira neure asmoa.

Eleiz Batzar Nagusia asi zalarik, ba zirudin gizadiak bide barri bateri eldu bear eutsola. Len antzera ordea dagoz oraindik, bai guda, bai gizarteko zalaparta ta orrelakoak. Ta bear bada, errua ez dago Eleizaren gain; baizik gugan. Bear bada ez gagoz gerturatuta, artzen diran erabakiak biotz zabaltasunez artu ta betetzeko.

Esaterako, gizonak erligio gauzetan bear dauan askatasunetaz artu dan erabakia; ez al da izan taizango, istillu askoren iturburu? Utzi daigun alde batera au ta goazen arira.

Judutarrak kondairan.

Askorentzat —geienentzat— pozgarri izan da, judutarretaz artu dan erabakia. Berez bear bada iñor ez dago aurka; baiña ikusi daigun bizi bidean zer nolako buru-austeak sortzen ditun. Au izango dot, beraz, azterkai.

Ezin naiteke asi orain, Erri onen kondaira guzia azalduten; ain ezagun ta zoragarri baida kristiñauontzat. Alan be ondo deritxot, Eleizak artu dauan erabaki onen arrazoa emotea.

Bidegabekeri asko ta asko jasan ditu Erri onek. Ta zoritxarrez kristiñauok ez gara makalenak agertu lan ipuingarri ontan; bai erri soillaren aldetik; bai "eleizgizonen" aldetik. Eleizak artu dauan erabakiaregaz, bere errua ezagutu dau; ta aurrerantzean orrelakorik gertatu ez daian, erabakiak artu ditu.

Esan dotalez —bear bada— Batzar Nagusiari, lurrin asko eskeifi deutzagu; baiña gero an artzen diran erabakiak betetzeko ez gagoz prest. Judutarretaz artu danarekaz orixe gertatu da. Asko ta asko bere aurka urten dira; ta erabakia argitaratu ez eitean, asma alako bide guziak erabilli dabez; bai agintariak, bai eleiz gizonak. Au batez be juduta-

rrak, lurraldeko tokirik paketsuenean ez dagozalako an dagoz inguruan, arabeak deituten ditugunak, leio amorratuak lez. Jokalari bi agertzen jakuz enparantzan; politika ta erligioa. Askok ta askok al balebe, gaur bertan ezetsiko leuke judutar erria; ta alegiñetan dabilz ori lortze arren. Au politikaren aldetik.

Nok dauko errua?

Kristiñauen aldetik, ez dago oztoporik. Baiña zer gertatzen da? Esan dotalez jokalariak biak dira. Bakoitza ez daite-

ke joan bere aldetik; (esan gura dot, gauzak errialde areetan gertatzen diran lez ikusiz). Izan be zer gertatzen da an?

Erri areetan musulmanak, oso beartsu ta ez jakiñiak dira. Ontan agintariak gura daben erara zuzendu daikete erria. Bestalde erri orreek judutarrekaz gudan dagoz; ta olan areen alde urteten dan bakoitzaren aurka. Kristiñauak asko dira judutarren aurka urteten badira, ziurki eztsiak izango dira. Olan garbi ikusten da ze nolako buru-austeak sortu ditun erabaki onek. Kristiñauak berebizi-ko trebetasun zuurtasuna bear dabe, be-



ESKATUTEKO TXARTELA

ANAITASUNA aldizkaria artu gura neuke:

Izen-abizenak

Bizilekua

Erria Probintzia.....

Zure izen-abizenak argiro jarri, mesedez, eta guri olan biildu: Revista Anaitasuna PP. Franciscanos. Aránzazu-Oñate (Guipúzcoa).

netako gizon ta kristau lez jokatuteko. Eleizaren erakutsiak onartu bearrean bai dagoz.

Sortaldean gertatzen da gaur au; zorakeria izango litzake bururatutea, sartaldean dana ezta izango dala. Nik uste gogorragoak ikusi bear ditugula.

Zorionez sartaldeak ez dauko judutarrekaz, sortaldeak bezelako oztoporik. Baiña ikasi daigun gure garaia be etorriko bait da; ta opa daigun beti judutar erriaren Jaun-Goikoaganatzea.

Lasa'tar Joseba Iñaki.

Erroma-n, abenduak 30.